



# MAXIXATZEN

TICKET BAI  
**ZERESANA  
DAKAR  
TIKETAK**



erreforma integralak

dica



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
bete ibilina

www.urrategiinteriorismo.com  
Arrogueta 27 Arretxe 9  
20600 Eibar 20730 Azpeitia

...erantzuna gara ...ALBERDI gara

 **ALBERDI**  
INMOBILIARIA

943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com  
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

## Azkoitian promozio berriko etxebizitza baten bila zabilta?



**Izar Jai**



**Ibaiondo Berri**



**Idiakez Ederra**

Zatoz eta aukera ezazu  
zure gustoko etxebizitza.



# MAXIXATZEN 423

2022-ABUZTUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ANARTZ IZAGIRRE

## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Anartz Izagirre, *Bakarrik-edo.*
- 6 **Hitz bitan** Mila Etxaniz, San Antonio ermitaren zaintzailea.
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Jon Andoni Martin, *Kafeko irudiak.*
- 10 **Iritziak** Karmen Irizar, *Fokoa*, Imanol Elezgarai, *Bare-bare.*
- 12 **Erreportajea** Biziraupena aurkian, digitalizazioa ifrentzuan.
- 19 **Iritzi grafikoa** Sara Rodriguez.
- 20 **Elkarrizketa** Amaia Epelde, musika irakaslea.
- 24 **Iritzia** Jose Ramon Aranbarri, *Bizitza.*
- 25 **Zakelmari.**
- 26 **Erretratu** Joseba Diaz, fisioterapeuta eta korrikalaria.
- 30 **Plazan bazan.**
- 32 **Erreportajea** Herriko festak gozatzeko, luzaroan zain.
- 36 **Erreportajea** 'Reality'-en errealitatea.
- 40 **Klik!** Berdinean desberdin.
- 44 **Iritzia** Irene Elorza, *Kale Nagusia?*
- 46 **Euskara** Ixabel Jauregi, *Altxa burua. Bertsoa paperean.*

MAXIXATZEN

TOKIKOM

**Argitaratzailea:**

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-85 36 17  
maxixatzen@maxixatzen.eus  
www.maxixatzen.eus

**Erredaktoreburua:**

Andoni Elduaen  
**Erredaktore taldea:**  
Anartz Izagirre  
Nerea Uranga  
Kris Fernandez  
Andoni Elduaen

**Diseinu arduraduna:**

Iñaki Martinez Albizu  
**Publizitate arduraduna:**  
Egoitz Azkoitia  
**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:**  
Jon Andoni Martin  
Karmen Irizar

Imanol Elezgarai  
Sara Rodriguez  
Saioa Murua  
Gorka Larrañaga  
Irene Elorza  
Ixabel Jauregi  
Jokin Sodupe

**Administrazio**

**Inprimategia:**  
Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-706/97  
**ISSN:** 1137-8891  
**Tirada:** 1.000 ale



**PUBLIZITATEA**

**Naike**  
**TATTOO STUDIO**

JULIAN BLOZKA 5 AZPETA  
 672 17 88 51



**EGUZKI** 

belardenda  
 dietetika  
 kosmetika naturala.

Kale Nagusia 67 943-50 34 47 **AZKOITIA**  
 Urbitarte 9 bis 943-15 00 20 **AZPETA**

Web proiektuak  
 Software ingeniaritza

**elkarmedia()**

info@elkarmedia.eus  
 943-65 08 74

**etk**

Informatika Zerbitzuak  
 943-02 63 29  
 www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa  
 santaklara kalea 35 | 943083487  
 www.brarkitektura.com

**PB**  
**Sport**

Iturrak 7 • 943-02 56 88  
 Kale Nagusia, 67 • 943-65 20 88  
 AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32  
 www.tta-kun.com • azkoitia\_ttakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA**  
**TABERNA**

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

JARRI  
 HEMEN  
 ZURE  
 IRAGARKIA



**zurt**

CEBAPETONAK  
 SANDWICHAK ETA HAPILKOZAK  
 ENTZALADAK  
 PASTELAK  
 GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZIL ZABALA  
 TERAPIAZA HANDEA ZUZENEKO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISANU PIZZAK  
 ENTZALADAK  
 PASTELAK  
 PLATERIKONBINATUAK  
 RABIOAK  
 OGITARTETONAK  
 ARDO ESKANTZIL ZABALA  
 SORBU ETA ANGI EKUPU  
 BAREGADAK

**LATZ**  
 TABERNA

LANINGURIA 06.00 ARTEBERRI  
 KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



**ALDAKO**

SARE ETA INFORMATIKA  
 ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA  
 ORDENAGAILU, MUGIKOR  
 ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
 Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76  
 aldako.informatica@gmail.com



**% 50 baino gehiago salduta**  
 IBAIONDO BERRI

 **ARANBARRI**  
 INMOBILIARIA

   
 www.aranbarri.com

# Bakarrik-edo



ANARTZ IZAGIRRE

**I**karagarri poztu naiz" diozu zure betiko lagunak bikotekidea topatu duela esan dizunean; udako sexu-laguna ustez betikoratzeko prozesua abiatu du hark, eta behinola zuen laguntasunaren orubea zena ebatsi dizute. Ez dakizu benetan ikaragarri pozten zaren, poztu egiten zaren besterik gabe, edo zeuon artean gera litekeen laguntasun apurrari eutsi nahi diozun, zure bizitza sozialaren biziraupena bermatzeko asmoz.

"Zenbat denbora daramazu bakarrik?", diotsu Tinderren ezagutu berri duzun maitale berriak, eta zuritza kontrako ezarratik behera joaten sumatu duzu. Ez zenuke zeure burua bakarrik dagoen pertsona bezala identifikatuko, baina hala izendatzearen lizentzia hartu du duela hamabost minutu ezagutu zaituen etorkizuneko bikotekide posible horrek. Harritu egin da kafea bakarrik hartu ohi duzula esan diozunean, baita zinemara inor gabe joaten zarela kontatu diozunean ere. Zeu eta krispetak; krispetak eta zeu.

*Jai. Ezkondu. Hil.* Berri Txarrak taldeari bere disko mitiko baten izenburua osteko eta aldatzeko ausardia izan dut egin beharko zenukeenari, askorentzat zilegi den gauza bakarrenetakoari eta ponpoxoa iruditu dakizukeen bizimoduari lerrobura ezartzeko. Haurra zinenean gustuko zenuen filmak 30 urte bete dituela ohartu zaren momentu berean bete dituzu zeuk ere hiru hamarkada, eta VHS bat zer den ez dakien gaztetxo batek zerbitzatu dizu ostiral iluntzeko kubata. Presioa sentitu duzu: ez zaizu zozketan etxerik egokitu, kuadrillako lehen ezkontzara bikotekiderik gabe zoaz, ez dakizu guraso izan nahi duzun. Ez dakizu ezer.

Horoskopoak behin baino gehiagotan gogorarazi dizu zure hilabetea dela datorrena, maitasuna heltzear dagoela. Merkurio gora eta Jupiter behera, Virgo bai baina Aries ez. Ez duzu deus ulertzen, baina konprenitu nahiko zenuke. Ulertu nahiko zenuke zergatik dagoen mundu osoa zure harreman afektibo-sexualez kezkatuta, eta zu ez horrenbeste. Ulertu nahiko zenuke bikotekide bat topatzea zergatik den zure inguruarentzat hain pozgarria, eta lagun berri bat izatea ez horrenbeste. Ulertu nahiko zenuke zergatik ikusten zaituzten bakarrik, aldamenean norbait falta duen papagaitxoa nola, gustura izateko, zoriontsu izateko; funtsean, izateko.

Nobela baten epilogoaren parte izan zitezkeen orain irakurri dituzun lerrook, baina akaso identifikatutegi sentitu zara kontatu dudana fikzio moduan katalogatzeko. Beste behin, beharbada, ez zara bakarrik sentitu, eta pentsatzen duzuna lau haizetara zabaltzeko kuraia duzula ohartu zara: ez duzula alboan inor behar; bikotekiderik ez izateak ez zaituela bakarrik dagoen pertsona bilakatzen; ez duzula etxerik erosi nahi, ezta umerik izan ere; zure bizitzeko modua errespetatzea soilik nahi duzula, ez besterik. Neuk esango dizut, badaezpada, inork esaten ez badizu ere: ez zara zu, maitasun erromantikoa da. ■■■

## HOROSKOPOAK BEHIN BAINO GEHIAGOTAN GOGORARAZI DIZU ZURE HILABETEA DELA DATORRENA

# "Ermita hauek zaintzeko auzolana ezinbestekoa da"

TESTUA ETA ARGAZKIA: **NEREA URANGA**

Mila Etxaniz (Azkoitia, 1946) Aizpurutxoko Etxebeltz baserrian jaiotakoa da, baina 40 urtez bizi izan zen Altzibarren. Auzo horretako San Antonio ermitaren zaintzaz arduratzen da egun. **Zer nolako lana da San Antonio ermita zaintzea? Eta zaintzuk dira zure egitekoak?**

Lan oso atsegina da niretzat. Ermita txukun mantentzea da nire egitekoa, baita herritarrek bertan botatzen duten limosna biltzea eta hori Parrokiaren esku uztea ere. Eliza barrua garbitzea, aldareko zapiak gordetzea eta zaintzea eta ermita ingurua garbi edukitzea ere badira nire egitekoak. Matxuraren bat edota nik egin ezin dudan konponketaren bat ikusten baldin badut, udaleko arduradunei jakinarazten diet.

**Ordu asko eskaintzen al dizkiozu egiteko horri?**

Astean pare bat buelta egiten ditut ermitara, eta apartekorik ez bada, ordubetetxo batean gauzatzen ditut eginbeharrak. San Antonio eguna (ekainaren 13a) gerturatu ahala, hori bai, lan gehixeago izaten da. Herritar ugari joaten da egun horretan ermitara, eta bereziki prestatzen da. Altzibar auzoko hainbat emakume biltzen gara garbiketarako. Auzolanean urteetan egin izan dugun lana da hori.

**Noiz hasi zinen lan horretan?**

Duela sei bat urte hartu nuen ardura. Ordura arte, Karmelo Alberdi zenak zaintzen zuen ermita, eta hainbat auzotarrek, tartean nik, lagundu egiten genion hari. Karmelok ardura uztea erabaki zuenean, niri utzi zizkidan giltzak, eta ordutik nik zaintzen dut, baina esan bezala, auzotarren laguntzarekin, auzolanean.

**Zergatik da berezia San Antonioren ermita zuretzako?**

Orain Burdinoleta auzoan bizi banaiz ere, 40 urtez bizi izan nintzen Altzibarren. Hura da nire auzoa, eta han ditut betiko lagun auzokideak. Betidanik oso berezia izan da guretzat San Antonio ermita; lagunak biltzeko toki bat izan da guretzat. Ermita garbitzeko hitzordua dugunean, lanak bukatu ondoren, bertan geratzen gara meriendatzen: batek kafesnea, besteak bizkotxoa... Elkarren

aldamenean eseri eta tertulia ederra izaten dugu. Auzoko lagunen bilgune izan da ermita, baina galtzen ari da hori.

**Jende askok bisitatzen al du ermita?**

Bai, harritzekoa ere bada jendeak San Antonioren dion debozioa. Herritar asko joaten da egunero ermitara, eta San Antonio eguna gerturatu ahala, zer esanik ez. Atea itxita egoten da normalean, baina kanpoaldetik aldarea begiratzera, errezatza eta limosna botatzera lagun asko joaten dira. Diru asko uzten du han jendeak.

**Egoera onean al dago ermita?**

Bai. Aspaldikoa da, XVII. mende ingurukoa, baina duela 15-17 urte inguru, saihebidetako lanak egin zituztenean, lekualdatu egin zuten, eta eraberrituta geratu zen. Barrutik zein kanpotik ondo zainduta dago. Argiteria, pintura edota egitura zaintzeko lanak udaleko brigadakoek egiten dituzte, eta ondo zainduta egoten da.

**Elizkizun berezirik egiten al da bertan?**

San Antonio egunekoa izaten da urteko elizkizun bakarra. 19:00etan izaten da meza, eta herritar ugari biltzen gara han.

**Eskaera bereziren batekin joaten al da jendea San Antonio ermitara?**

Esango nuke egun ez dagoela halako ohitura berezirik, baina herritarrek fede handia dute San Antoniorekin. Egunero jende asko joaten da limosna botatzera eta errezatza, bakoitza bere eskakizun partikularrekin. Garai batean bai, baserritarrek ohitura handia zuten San Antonioren ganadua zaindu zezala eskatzeko.

**Ermitak zainduta egoteko zu bezalako boluntarioen lana garrantzitsua da, ezta?**

Ermita hauek zaintzeko ezinbestekoa da auzolana. Gu zahartzen ari gara, eta ez dakit erreleborik egongo ote den. Pentsa, nik 76 urte ditut, eta laster utzi beharko dut lan hau.

Musutruk aritu gara urte askoan, eta horretarako prest dagoen norbait behar da lan honekin jarraitzeko. Fedea ere garrantzitsua da guretzat. Fedeak bultzatuta gaude hemen. ■■■



## Kafeko irudiak

---

ARGAZKIA: **JON ANDONI MARTIN**

---

TESTUA: **AITOR ARRUTI**

---

Bihotza kafe-aparretan igeri,  
lorea platertxo erdian ageri,  
eder nahiak irudimenari abegi,  
ekineko abian esku eta begi. ■■■







## Fokoa

**E**gia ote da J.M. Sanchez Carrion *Txepe*tz hizkuntzalariak Udako Ikastaroetan esandakoa, alegia, egungo albistegiak ikustea eta prentsa irakurtzea dela desinformatuta egoteko modu onena? Baietz esango nuke, albiste asko direla horren adibide. Gehienetan gezurrik ez behar bada, baina fokoa atal bakarrean jarrita benetako helburua den ikuspegi partziala erraz hedatzen da. Hona horietako batzuk, ea zuek zer deritzozuen!

Duela urte batzuk, Javier Elzo soziologoak PISA azterketetako emaitzen errepassoa egin zuen egunkari bateko zutabe batean. Aurreko urteetan bezala, Europa iparraldeko herrialdeak nagusi ziren, eta hegoaldekoak, aldiz, batez bestekotik behera guztiak. Horrela irakurrita, pentsatzekoa

da zer baitetan oso oker gabiltzala, eta hasi beharrean gaudela Finlandiako irakasleak ezagutzera bueltaka. Beste datu bat eman zuen ondoren: iparraldeko herrialde horiek –eta horietan Finlandia buru zen– Europako 25 urte bitarteko gazteen suizidio tasarik altuena dute. Galdera bat eginez bukatu zuen zutabea: "Bi datu horiek esku artean izanda, galdetu iezaiozu amonari non hazi nahiko lituzkeen bilobak, Finlandian edo Italian?".

### **FOKOA ATAL BAKARREAN JARRITA, HELBURUA DEN IKUSPEGI PARTZIALA ERRAZ LORTZEN DA**

Urtean behin *Forbes* aldizkariak munduko pertsona aberatsenen zerrenda argitaratzen duenean, zenbat bilioi dituzten jarri ohi du izenaren ondoan, eta zenbat egin duen gora edo behera zerrendan. Demagun izenburua aldatu eta "Pasa den urteko lapurrik handienak edo zikinen jokatu dutenak" jartzen duela. Egia da aberatsenak direla, baina baita dirutza hori egiteko pertsona asko zapaldu dituztela ere; gezurra esanda, linbo legalen bat aprobetxatuta, jende mordoari ziria sartuta, pobretutako herrialde bateko jendearen bizi eta lan baldintza eskasen bidez beraien poltsikoak gizenduta... Ikustekoa izango litzateke zer egingo luketen zerrendatik kanpo geratzeko.

Uztaileko *GUKA* aldizkarian bailarako lagun mordoxka bati

## HAUXE BAI JENEROIA!



## ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

## Bare-bare

**N**ire artikulua idazterakoan gehientsuetan kontatu nahi dudana hitzon mugetan sartzeko lan dezente izan ohi badut ere, uda partean tokatzen zaidan iritzi artikulua izan ohi da zailena. Betiere buruan bueltaka dudana gairen bati buruz idatzi nahi, eta burua ere oporretara joan izan balitz bezala, gai hori aurkitu ezin.

Ez dago pizten nauen albisterik COVID-19aren osteko (sic.) udan; gerra baten erdian; gasolinaren prezioa bikoiztuta dagoenean; inflazioa mundu mailako gatazka handienaren garaietan lez, bi zifrean egonik; argia eta gasaren kostua, berriz, atzokoa baino handiagoa, biharkoa baino txikiagoa. Agintarien neurriak, berriz: gaur, 20 zentimo behera; etzi, 30 gora. Eta egia esateko, beldur naiz ez ote garen honetara ere ohitu. Conilera oporraldia dezentez garestiagoa aterako zaigu aurten, baina itsasertzean garagardo bat eskuan kexu egin eta *check*. "Zer egingo diogu ba guk?", sentsazio etengabea. Bulegok kantatzen duen modura, "*egia esan, aspaldian, bare-bare dago dena; urteak pasa diren arren hau betirako da*". ■

galdetu zieten nora joandakoak ziren oporretan. Hortzak luze-luze eginda irakurri nituen jendeak esandakoak. Ez zeukan jendeak ezer ezkutatzeko. Zer gertatuko zatekeen, ordea, galdera beste era batera planteatu izan baliete? Tokiei buruz galdetu beharrean, bidaia horiekin ingurumenean zer nolako kutsadura sortu duten galdetu izan baliete? Jon Kareaga ingurumen aktibistak aipatzen du, injustizia sozialak eta klimatikoak komunikatzeko bakarrik bidaiatzen duela. Bidaiatzea ederra da inondik ere, baina sekulako estutua ematen dio lehen ito beharrean dagoen ingurumenari. Ez al diogu horretaz galdetuko geure buruari? Iberdrolaren iragarki umorezko bat dabil egunotan telebistan. Emakumeen futbola eta gizonen futbolarekiko

berdintasuna sustatzen dituela dio ozen. Emakumeek gizonen pareko soldatak, kontratuak eta irabaziak izateari buruz ariko da ziurrenik, ez du argi esaten. Gizonen futboleant, ordea, toki handia hartzen du zerga iruzurrak, futbol taldeak dira iruzurgile handienak, futbolariak ere hamaikatxo dira paradisu fiskaletako bezero pribilegiatu. Horretarako ere nahi ote dute emakume futbolariak berdintasuna? Ala benetan uste dute, garbi jokatura eta zuzen ibilita egiten duela futbolariek hainbeste diru?

Fokoa, begirada, zer esaten den eta zer ez, zer argitara atera eta zer ahanzturan utzi... Horra manipulazioaren gakoetako bat. Zenbat aldiz erortzen ote gara egunero horrelako tranpetan? Zenbaterainokoa ote da daukagun desinformazioa? ■





# Biziraupena aurkian, digitalizazioa ifrentzuan

Berandu baino lehen, Ticket Bai sistema ezarrita izan beharko dute zergadunek. Zeresana eman du sistema horrek hainbat sektoretan, eta askotariko eskaerak egin dizkiete Aldundiari sistema atzeratzeko zein bertan behera uzteko eskatuz; beste batzuk jada normaltasunez ari dira sistema erabiltzen.

Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Anartz Izagirre eta utzitakoak**.

**S**istemaren izenburuak baietz dio, baina sistema hori ezarri behar duten hainbat sektoretako zenbait zergadunek ez dute iritzi bera. Iskanbila eragin du Ticket Bai sistemak lurraldean zein lurraldetik kanpo; hainbat izan dira sistema hori ezeztatzeko, atzeratzeko edo birmoldatzeko eskaerak egin dituzten elkarteak eta erakundeak, eta zergadunen artean era guztietako iritziak sortu ditu Eusko Jaurlaritzak nahiz Arabako, Bizkaiko zein Gipuzkoako foru aldundiek elkarlanean ezarri nahi duten sistemak. Azkenean, hainbat data aldaketaren ostean, behin betiko epeak ezarri dituztela dirudi; sistema ezartzeko borondatezko epean daude hainbat sektoretako zergadunak, baina beste batzuentzat iristear da derrigorrezko epea.

Jarduera ekonomiko bat egiten duten pertsona fisiko eta juridiko guztiei eragiten die Ticket Bai sistemak, baina praktikan, norbanako zein elkarte guztiei ez die modu berean eragin, eta horrenbestez, horien guztien ikuspuntua eta kezkak ere ez dira berberak. Merkataritzarena da, esaterako, Ticket Bai sistemak zuzenean eragin dion sektoreetako bat, eta Dendaratean Gipuzkoako merkatarien, ostalarien, zerbitzu enpresen eta autonomoen elkarteak kezkaz bizi ditu derrigorrezko epea heldu aurreko hilabeteak. Merkataritxiak azaroren lehen helduko da epe hori, eta horietako batzuek sistema dagoeneko borondatezko epean ezarri badute ere, "gehiengo nabarmen bat prestatu gabe" dagoela azaldu du Xabier Aldalur Dendarateaneko teknikariak: "Mobilizazioak izan dira sistema horren aurka, eta oraindik ere esperantza txiki bat mantentzen zen Ticket Bai indarrean ez sartzeko. Askok bukaerara arte utzi dute".

Dendaratean hainbatetan bildu da Aldundiko ordezkariekin, sistemaren inguruko eraginak eta kezkak helarazteko, eta oraintsu "proposamen zehatzak" egin dizkietela nabarmendu du Aldalurrek, "merkataritza txikiaren suntsipena" geldiarazteko. Hiru puntutan laburbiltzen dituzte beren eskaerak: 60 urtetik gorakoak salbuetsita izatea, hiru langile edo gutxiago baldin badituzte; bederatzi langile baino gutxiago dituzten enpresei borondatezko epea Bizkaian ezarri duten epera luzatzea –hau da, 2024ra luzatzea–, eta Ticket Bai arautzen duen 32/2020 Foru Dekretuaren 6. artikuluan agertzen den moduan, enpresen eguneroko jardueran sistema horrek "perturbazioen bat eragiten badu" salbuespena eskatu ahal izatea, hiru langiletik behera dituztenentzat. Era berean, Ticket Bairen inguruko "banakako formazioa eta tutorizazioa" falta direla azaldu du teknikariak.

### **Ticket Bai, orain ez**

Sistemaren ezarpen egutegia da, besteak beste, Dendarateaneko kideengan mesfidantza eta ardura eragiten dituen kontuetako bat.



Idoia Ezkurdia, Nekaturreko gerentea.

"Iruditzen zaigu Ticket Bai ezin dela ezarri Aldundiak planteatzen duen epeetan eta formetan. Aldaketa batzuk egin behar dira, sistemak ez dezan dendari txikiengan halako suntsipenik ekarri". Ildo horretatik, sistema orain ezartzeak "denden itxiera handia" ekar dezakeela uste du Aldalurrek, batez ere, jubilatzearen dagoen jendearen dendak: "Posible da bizpahiru urtetan denda ixtea aurreikusita zuenak data hori aurreratzea. Azkenean, errentagarriak diren dendak eta denborarekin errelebo aldaketa izan zezaketenak itxi egingo dira, eta behin horiek itxita, oso zaila da berreskuratzea". Dendarteaneko teknikariak jakinarazi du "behin baino gehiagotan" azaldu dietela Aldundiari Ticket Bai ezarri, ezar daitekeela, baina "beste modu batean".

Ticket Bairen kezka iturri da, halaber, digitalizazioaren afera. Sistema hori ezartzearen helburuak, besteak beste, iruzur fiskalari aurre egitea eta digitalizazioa dira. Aldalurrek dio "erabat garrantzitsua" dela beraiantzat saltokien digitalizazioa, baina ez direla "moduak" hori ezartzeko. "Iruditzen zaigu badaudela beste modu batzuk digitalizaziorako pausoa emateko, prozesua dendari txikien erritmoetara egokituta, ez behartuta". Softwarea ezarri beharrak ere arduratzen ditu hainbat: "Denda bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta Ticket Bairen erantzuna emateko aukera desberdinak daude. Elikadura sektorekoek, adibidez, sistema hori izango duen balantza behar dute, eta behar bada, balantza horietako bakoitzagatik 3.000 euro gastatu beharko dituzte". Beste batzuentzat, berriz, nahikoa izango da lehenik duten ordenagailuan softwarea berritzea. Kontuak kontu, software hori berritzeak ere gastua duela aitatu du Aldalurrek, eta gastu erantsi horrek arduratzen dituela hainbat dendari.

### **Urgentziarik ere ez**

Ticket Baik eragindako kezka, oro har, sektore osora zabalduta dagoela azaldu du Aldalurrek, eta leku guztietan daudela "era bateko eta besteko" iritziak. Urola bailaran, halere, oro har kontrako jarrera nagusitu dela dio. Hainbat izan dira ezarpen horren aurka egin diren mobilizazioak, eta horien "balorazio positiboa" egin du teknikariak; kontrara, Aldundiarengandik jaso duten erantzuna "momentuz negatiboa" izan dela nabarmendu du.

Ez da ahaztu behar, bestalde, azken bi urteak itogarriak izan direla merkatarientzat, izurriak ez dielako utzi beren jarduerara behar bezala garatzen. Merkataritzan krisia "pandemia baino lehenagotik" datorrela gehitu du teknikariak, eta jendearen erosketak ohiturak aldatzearekin batera aldatu egin dela merkataritxikien egoera ere. "Erosketak *online* egiteko aukera sortu denean, mundu mailako plataformek horra egokitzeko aukera gehiago dituzte, eta sareko erosketen merkataritza nitxo hori beren egin dute. Dendari txikiei gehiago ari zaie kostatzen egokitzea. Era

berean, Ukrainako gerrak eta inflazioak ere salmentetan eragina izan dutela azaldu du Aldalurrek. Dendarteanen argi dute ez dagoela "urgentziarik" Ticket Bai orain ezartzeko: "Dendarien artean ez dago Ticket Bai ezarri beharra justifikatzen duen iruzur fiskalik".

### Landetxeetan ere, eragina

"Esfortzua da". Halaxe laburbildu du Nekatur nekazalturismoen elkarteko Idoia Ezkurdia gerenteak Ticket Bai. Uda garaia heltzearekin batera goi denboraldian sartu dira landetxeak eta bestelako etxebizitza turistikoak, eta hilabete gutxi gelditzen zaizkie horiei ere sistema behin-betiko ezartzeko –merkatari txikien epe bera dute–. Beraiek sortutako kudeaketa programa zuen Nekaturek lehendik fakturak egiteko, eta softwarea sistema berrira egokitu behar izan dute orain. Ildo horretatik, hainbat jardunaldi egin dituzte elkarteko kide direnei zein ez direnei sistema berriaren gaineko informazioa emateko, eta esfortzuak esfortzu, probatu dutenak "gustura" daudela azaldu du Ezkurdiak: "Kontuan hartu behar da Ticket Bai sistema probatu dutenak abilezia handiena duten pertsonak direla, eta alde horretatik ez dutela horrenbesteko alde igarri".

Euskadiko Landa Ostatuen barruan hiru foru aldundi nahiz ogasun daude, eta beraz, konplikatu izan da Nekaturrentzat hori kudeatzea, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ezarpen datak desberdinak direla aintzat hartuta –Gipuzkoan azaroaren 1ean ezarriko da, Araban abenduaren 1ean eta Bizkaian 2024ko urtarrilean–. Ezkurdiak, Aldalurren moduan, egutegia jarri du jomugan: "Batek baino gehiagok lan egiteko zituzten orain arteko ohiturak aldatzea eragingo du sistema honek, eta pasatu ditugun bi urte konplikaturen ondoren, oso segidan etorri da ezarpena. Ez dugu arnasa hartzeko denbora gehiegi izan".

Salbuesita dagoen kolektiboari dagokionez, "berri ona" dela aipatu du Ezkurdiak, eta hiru foru aldundiei hasieratik eskatu dieten eskaera izan dela ere gaineratu du. "Badauzkagu Internet konexioa ere ez duten kide batzuk Nekaturren barruan, eta zentzu horretan, Ticket Bai sistemarekin lan egiteak zailtasunak eragin dizkie hainbat eta hainbat pertsonari". Ildo horretatik, Nekaturreko gerenteak gehitu du salbuespen horiek gabe hainbatek lehenago etengo zuketela lan jarduera: "Jaberen bat edo beste, salbuespen hori egiten ez bazen, lehenago jubilatzea eta landa ostatua ixtea pentsatzen ari zen. Salbuespen horrek lasaitasuna eman die horiei".

Kontuak kontu, Ticket Bai sistemak alderdi positiboak ere izan ditzakeela nabarmendu du Ezkurdiak, gehienbat, digitalizazioari lotuta. "Digitalizazioan lagunduko duen sistema izango da, eta orain arte Nekaturren kudeatze sistema erabiltzen ez zutenek, gaur egun erabiltzeko aukera izango dute. Hala eta guztiz ere, sistema horretarako egokitzapen prozesuan "denbora" eskatu du Ezkurdiak: "Denbora pixka bat gehiago eskatzen duen aldaketa potoloa da".



Xabier Aldalur, Dendarteaneko teknikaria.

**XABIER ALDALUR:  
"IRUDITZEN ZAIGU  
TICKET BAI EZIN DELA  
EZARRI ALDUNDIAK  
NAHI DUEN EPEETAN"**

**IDOIA EZKURDIA:  
"DENBORA PIXKA BAT  
GEHIAGO ESKATZEN  
DUEN ALDAKETA  
POTOLOA DA"**

# Ticket Bai

## Zer da Ticket Bai sistema?

Ticket Bai Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren proiektu bateratua da. Horren bitartez, zergadunen fakturaziorako softwareetan legezko zenbait betebeharrak eta teknika ezartzen dira, Ogasunak aukera izan dezan aipatutako pertsonen ekonomia jardueren ondoriozko diru-sarrerak kontrolatzeko, bereziki, azken kontsumitzaileei ondasunak entregatu edo zerbitzuak ematen dizkieten sektoreen barnean kokatutako jarduerak, neurri handi batean eskudirutan kobratzen baitira.

## Zeintzuk dira Ticket Bai ezartzeko salbuetsita dauden kolektiboak?

Araudian kontsulta daiteke Ticket Bai ezartzeko salbuetsita daudenean zer baldintza bete behar dituzten, baina horien artean salbuespen ezagunena da 60 urtetik gorako autonomoena; horiek ez daude behartuta Ticket Bai ezartzera, baldin eta beste baldintza guztiak betetzen badituzte.

## Zein da Ticket Bai ezartzearen helburua?

Ticket Bai proiektuaren helburua da zergadunek egindako ondasunen entregak eta zerbitzu emateak dokumentatzeko erregistroen osotasun, kontserbazio, trazabilitate eta bortxaezintasuna bermatzea, hala fakturena nola eragiketak justifikatzeko beste edozein dokumenturena, euskarri elektronikoa edo paper euskarrian. Horrekin batera, proiektuak hiru aurrerapen esanguratsuak ekarriko ditu: digitalizazioa, izapide burokratikoak egitea erraztea eta iruzurraren aurkako borrokan aurrerapausoak.

## Noiz ezarri behar dute Ticket Bai Gipuzkoako zergadunek?

Honakoa da egutegia:

- 2022ko uztailaren 1a. Zerga kudeaketako profesionalak.
- 2022ko irailaren 1a. Jarduera profesionalak.
- 2022ko azaroaren 1a. Txikizkako merkataritza, ostalaritza, ostatuak eta gainerako profesionalak.
- 2023ko apirilaren 1a. Eraikuntza eta higiezinaren promozioa, garraioa, eta aisialdi zerbitzuak, kulturalak eta pertsonalekin erlazioatutako zerbitzuak.

- 2023ko ekainaren 1a. Fabrikazioa, handizkako merkataritza, telekomunikazioa, finantzak eta artistak.

## Zer onura jasoko dituzte Ticket Bai borondatezko epean ezartzen dutenek?

Alde batetik, laguntzei dagokienez, kenkari indartsua jasotzeko aukera ematen da: egin den gastuaren %60ko kenkaria, hain zuzen ere. Gainera, likidezia momentuan jaso ahal izango da, Kenkariback ereduaren bitartez.

## Eta nola eragingo dio sistema horren ezarpenak bezeroei?

Bezeroek negozioak zerga betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko aukera izango dute, igorritako fakturen osotasuna eta identifikazioa bermatuz.

## Zer aukera eskaintzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak sistema hori ezartzeko?

Gipuzkoako Foru Ogasunak FakturaBAI izeneko doako aplikazio bat ipintzen du zergadunen eskura. Hura erabiliz, Ticket Bai betekizun guztiak betetzen dituzten fakturak sortu ahalko dituzte, inolako mugarik gabe, eta zergadun espektro zabal bati estaldura emango zaio. FakturaBAI aplikazioaren gaineko informazioa Ogasunaren webgunean aurki daiteke.

## Non aurki dezakete zergadunek eta bezeroek informazio gehiago?

Alde batetik, Ogasunaren webgunean, Ticket Bairen atalean; bestetik, edozein zalantza argitzeko 943-11 30 00 telefonora dei daiteke, eta edozein kontsulta egin daiteke Ticket Baire buruz [ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus](mailto:ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus) helbidean. Horrez gain, aurrez aurreko arreta dago, telefonoz edota webgunean hitzordua eskatuz. Azkoitiaren kasuan, Azpeitiko bulegoa da gertuen dagoena.



Gipuzkoako Foru Aldundiak erantzundako galdetegia.





## Antonio Garate: "Derrigorrezkoa izan arte ez dut probatzeko asmorik"

Landagarre landetxea kudeatzen du Antonio Garatek (Azkoitia, 1956), eta Ticket Bai aktibatuta baldin badu ere, oraindik ez da erabiltzen hasi.

"Alferrik esango dugu nahi dugun ala ez, dagoeneko ezarrita dago eta. Ezetz badiozu, eta ondoren, Ogasuna galdezka hasten bazaizu, zer azalpen eman behar diozu? Ez dago alternatibarik. Bestalde, gaizki ikusten dudana da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ezarpena data desberdinetan egitea. Zergatik Bizkaian 2024an, eta Gipuzkoan orain? Guk akatsak egindakoa besteek hortik ikasteko?"

Oraindik ez diot altarik eman Ticket Bairi, baina dagoeneko ezarrita daukat; derrigorrezkoa izan arte ez dut probatzeko asmorik. Softwarea alokairuan hartzea erabaki nuen; modu horretan, beraiek eguneratu beharko dute sistema nik erabil dezadan. Digitalizazioaren kontua ondo ikusten dut, eta neuk ere ahal dudan heinean dena digitalizatuta daukat, baina horretarako ere dirua gastatu behar da.

Ezari duten 60 urtetik gorakoentzako salbuespenak ere tranpa dauka, tarte horretan langilerik ezin baituzu kontratatu. Langilerik ez baduzu salbuespena zaude, bai, baina zer egin behar duzu gaixorik jartzeko bazara eta ezin baduzu lanik egin? Horrek esan nahi du enpresa ixtera doazenentzat bakarrik balio duela neurri horrek; hori badaki Ogasunak, eta ez zaio axola.

Hori guztia gu kontrolpean izateko dela iruditzen zait, baina gu kontrolatzea bestela ere ez da zaila, ia dena txartelarekin ordaintzen baitute bezeroek. Niri beldurra ematen dit sistema honen ezarpenak, sekulako lana eskatzen baitu, eta horrek esan nahi du gestorian gehiago gastatu beharko dugula; langile batek lehen hiru ordu behar bazituen lanerako, orain pare bat ordu gehiago sartu beharko ditu.

Kontua da dirua behar dutela erakundeek, eta handiei ezin dietela kendu, haiek agintzen dute eta. Dirua nonbaitetik atera behar dute, baina beti enpresa txikietatik? Handiek barra libre dute".



## Itsaso Odriozola: "Amak landetxea kudeatzeari uzten dionean, nik nahitaez jarri beharko dut Ticket Bai"

Balentziaga landetxeko jabea adinagatik salbuespena dago Ticket Bai ezartzera, baina bere alaba Itsaso Odriozolak (Azkoitia, 1999) erreleboa hartu beharko balu, derrigor ezarri beharko luke sistema.

"Ez gara hasi Ticket Bai erabiltzen; izan ere, nire amaren izenean dago landetxea, eta hark 60 urtetik gora dituenek, salbuespena dago. Nik laguntzen diot gauza batzuetan, baina ez naiz bertako langilea. Sistemaren inguruan gustatzen ez zaidana da derrigortu egin gaituztela ezartzera, eta amak landetxea kudeatzeari uzten dionean, nik nahitaez jarri beharko dut Ticket Bai.

Dena den, gu Nekaturren barruan gaude, eta haiek laguntza handia eskaini dute bidea errazago egiteko. Gainera, Nekaturrek berak Ticket Bai sistema bat garatu du horretarako. Itxierei dagokienez, ez dakit sistemaren ezarpenak eragin handia eduki al dezakeen landetxetako jabeen erabakietan, beharbada xteko asmo hori oso aurreratuta duen jendearengan bai. Baina izan daiteke landetxe batzuen itxiera bultzatzeko beste faktore bat.

Guk egunean zehar ez dugu fakturazio handirik izaten, bost gela soilik baititugu, eta fakturak egiten pasatzen dugun denbora ez litzateke askoz gehiago izango Ticket Bairekin ere".



## Oihane Arozena eta Ieltxu Caballero: "Beldurra ematen digu sistema denok ezarri behar dugun unean zer gertatuko den pentsatzeak"

Duela urtebete ireki zuten Oihane Arozenak (Azkoitia, 1993) eta Ieltxu Caballerok (Azpeitia, 1995) Karpos frutategia. Negozioa hartu orduko ezarri zuten haiek Ticket Bai sistema, eta martxan dute dagoeneko.

"Ofizialki joan zen irailean jarri genuen Ticket Bai sistema. Duela urtebete ireki genuen Karpos frutategia, eta baskula berria jarri behar genuenez, tontakeria bat iruditu zitzaigun Ticket Bairik gabekoa ezartzea, hala egin ezean orain berriro ere aldatu beharko baikenukeen. Gainera, Ukabi enpresak Ticket Bairekin jarritako lehen baskula izan zen gurea.

Foru Aldundiaren aldetik ikusten ditugu akats gehien; oraindik gutxi gara Ticket Bai sistema ezarrita dugunok, eta askotan huts egiten du sistemak. Beldurra ematen digu sistema denok ezarri behar dugun unean zer gertatuko den pentsatzeak. Iruditzen zaigu aldundia ez dagoela prestatuta; guk, badaezpada ere, baskula zaharra gordeta daukagu larrialdietarako. Ikusten dugun alde positibo bakarrenetakoa da orain saltzen dugunaren kontrol handiagoa izango dugula.

Salbuetsita dauden kolektiboena, bestalde, lotsagarria da. Adinagatik, 60 urtetik gorakoak bakarrik daude salbuetsita. Saltzaile batzuekin hitz egiten aritu gara, eta esan digute sistema ezarri behar dutelako ez dutela negozioarekin jarraitzeko asmorik. Urte asko daramatzaten langileentzat sekulako aldaketa da. Gainera, arte eta urre salerosketakoak ere salbuetsita daude, diru beltz gehien kudeatzen duten sektoreak, hain zuzen ere. Saltzaile txikiok ez dugu ezer handirik ezkutatzeko, eta kontrola gehiegizkoa da. Enpresa handiak, zergak kanpoan ordaintzen dituztenak, horiek dira gehiago kontrolatu behar direnak, baina beti merkatari txikiak jartzen gaituzte jomugan.

Gainera, salmentak asko jaitsi dira izurriaren garaitik, eta saltoki bakoitzaren arabera inbertsio txikiagoa edo handiagoa egin behar duzu. Gurea bezalako frutategietan, adibidez, inbertsio handia egin behar da baskulek Ticket Bai izan dezaten, eta gastua handia da. Gauzak dauden bezala egonda, askori kostatu egingo zaio negozioarekin aurrera jarraitzea". ■

**"LANEAN URTE ASKO DARAMATZATEN LANGILEENTZAT TICKET BAI SEKULAKO ALDAKETA DA"**

**"GAUZAK DAUDEN BEZALA, JENDE ASKORI KOSTATU EGINGO ZAIO NEGOZIOAREKIN AURRERA SEGITZEA"**



# "Oso nirea da pianoa, sentitu egiten dut"

**AMAIA EPELDE** GRANADAKO UNIBERTSITATEKO MUSIKA IRAKASLEA

Pianoarekin trebatu zen umetan Amaia Epelde, eta mundu zabalean egin zituen ikasketak, hala nola Madrilén, San Petersburgoan eta New Yorken. Pianoarekin hartuta zuen bidea utzi eta irakaskuntzan murgildu zen, eta egun, lanbide horretan dihardu Granadako Unibertsitatearen Melillako campusean. Testua: **Andoni Elduaen**. Argazkiak: **utzitakoak**.

**P**iano ikasketak egin zituen Amaia Epeldek (Azkoitia, 1964) ume sasoiaren. 23 urte daramatza Melillan (Espainia) bizitzen, baina ondo barrutik azaleratzen du hark sorterriarekiko duen maitasuna. Granadako Unibertsitatearen Melillako campuseko irakaslea da Epelde, baina lanbide hori hartu aurretik ibilbide luzea egin zuen pianoarekin; izan ere, nazioartean ibilia da ikasten eta kontzertuak eskaintzen.

**Pianoak eraman zaitu egun egiten ari zaren bidea egitera.**

Oso aurreratuta eduki izan ditut beti piano ikasketak. Donostian, Madrilén eta Errusian egin nituen horiek, eta New Yorken, berriz, master ikasketak. Ikasketak amaitutakoan, kontzertuak eman nituen orkestrekin nahiz bakarlarri bezala. Duela 23 urte, baina, Granadako Unibertsitatearen Melillako campusean hasi nintzen irakasle lanetan, eta horretan dihardut oraindik. Doktoretza ere egin nuen, eta kargu asko izan ditut urte hauetan guztietan. Egun, ikasleen Unibertsitate Hedapeneko eta Nazioartekotzeko dekanordea naiz.

**Zerk bultzatu zintuen musikara? Zergatik egin zenuen pianoaren aldeko hautua?**

Azkoitiko beste haur askok bezala, nire gurasoek musika ikasketetan matrikulatu ninduten. Orduan mojetan egiten ziren musika ikasketak herrian; gogoan dut Pilar Elorza ahizpa, harekin hasi nintzen-eta ikasten. Azkoitian pianoa bakarririk irakasten zuten sasoi hartan, eta hala hasi nintzen. Elorzarekin ikasi ostean, uztailean, Donostiara joaten ginen azterketak egitera. Proba horietan beti bikain ateratzen nuen, erraztasun handia bainuen pianoarekin. Pentsa, bi ikasturte batera egindakoa naiz. Urte haietan, gainera, umeen kontzertuak antolatzen hasi ziren Azkoitian, eta nik beti parte hartzen nuen.

**Urte asko daramatzazu herritik kanpo. Noiz utzi zenuen Azkoitia?**

Azkoitia nire erreferentzia puntua izan da beti. Azkoitiko ikasketa guztiak amaitu nituenean, Donostiako Kontserbatorioan jarraitu nuen ikasten. Erdi mailako ikasketak egin nituen Gonzalo Trevijano irakaslearekin, eta hark Madrilera joateko aukera eman zidan. 19 urterekin Madrilera joan nintzen, baina neguko eta udako oporraldietan etxera itzultzen nintzen.



Errusian eta New Yorken bizi izan nintzenean ere, oporraldian etxera itzultzen nintzen. Granadako Unibertsitatearen Melillako campusean lanpostua aurkitu nuenean utzi nuen Azkoitia, hara joan bainitzen bizitzera.

### **23 urte daramatzazu Melillan bizitzen. Zer moduz?**

Melilla oso leku ederra eta eroso da bizitzeko. Zeharo desberdinak dira Azkoitia eta Melilla. Hiri txikia da, eta guztia eskura dugu; zerbait lortzeko ez dago hiritik atera beharrik. Jendea autoarekin mugitzen bada ere, oinez leku guztietara iristeko aukera ematen du hiriak. Klima ere aparta da. Abenduan eta urtarrilean berokia jantzi behar izaten dugu, baina ez du hotz bortizik egiten; udan, berriz, beroegi egiten du. Kultura aldetik, bestalde, anitza da. Kristauak eta musulmanak elkarrekin bizi gara hemen, baina erabateko errespetua diogu elkarri.

### **Erraza izan al zen Azkoitia uztea?**

Hori beti izaten da zaila. Askotan sentitzen dut Azkoitiaren falta. Norbere lurrak tira egiten duela esaten dute, eta egia da. Lanean oporrak hartutakoan, Azkoitira joango naiz, eta han pasatuko dut abuztua.

### **Nola oroitzen dituzu pianoarekin emandako lehen urratsak?**

Oso nirea da pianoa, sentitu egiten dut. Egun, ez dut betarik jotzeko, irakasle lanak eta dekanordetzak denbora asko eskatzen baitidate. Musikari batentzat guztia da musika, eta hala sentitzen dut nik ere. Zoriontasun handiko garaia izan zen pianoaren bueltan bizitakoa. Gainera, ez da gauza bera musika entzutea edo musika norberak jotzea. Garai hartan neuk egiten nuen musika, eta musika norbere buruak interpretatutakoa denean, sentsazio berezia bezain ederra sortzen zait barruan. Alaitasun handia ematen dit.

### **Beka batzuk ere jaso zenituen bakarlari bezala kontzertuak emateko. Zein da bereziki gogoan duzun emanaldia?**

Errusian ikasteko Espainia-Batasun Sobietikoaren Elkartean emandako beka jaso nuen, eta AEBetan ikasteko, Fulbright beka eman zidaten. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak beste bi beka eman zizkidan. Ikasketa horiei esker, kontzertuak emateko aukera sortu zitzaidan. 1987an, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eman nuen kontzertua Azkoitian; *Chopin*en *1go kontzertua* eskaini nuen. Emanaldi entzutetsua izan zen, Baztartxo bete egin zen. 1993an, berriz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin eman nuen kontzertua herrian;

oso garrantzitsua izan zen kontzertu hura ere. Gainerakoan, Euskal Herriko eta nazioarteko aretoetan ibili naiz, hala nola Errusiako Tchaikovsky aretoan eta AEBetako beste hainbatetan.

### **Bakarka edo orkestrarekin nahiago?**

Desberdina da. Ardura handia da jendaurrera bakarrik irtetea. Ikusleak, ordea, nahiago du orkestrarekin batera ikustea; izan ere, bakarrik motelagoa izatean da emanaldia. Era batera edo bestera, ardura berarekin hartu izan ditut kontzertuak.

### **Irakaskuntzan murgildu zinen gero. Zergatik erabaki zenuen ordura arte pianoarekin zenuen lotura, nolabait, haustea?**

Arrazoi pertsonalek behartuta hartu nuen erabaki hori. Arrazoi horiek izan ez banitu, uste dut ez niokeela pianoa jotzeari sekula utziko. Pianoarekin lotura hautsi egin nuen, ordea, eta Melillako campusean eskolak ematen hasi nintzen.

### **Ikerketa lanetan ere parte hartu izan duzu, ezta?**

Ikertzaile nagusi bezala, ikerketa proiektu bat baino gehiagotan parte hartu dut. Egun, esaterako, *Ikastetxeko zuzendaritzaren zuzendaritza eta derrigorrezko hezkuntzan inklusioa hobetzeko ekarpena* izeneko proiektuan nabil buru-belarri. Era berean, Europa mailako beste proiektu batean ere egon naiz sartuta Zipren, *MusiChild* izenekoan. Musika haurrengan nola hobetu zitekeen ikertu genuen. Lau herrialdek parte hartu zuten proiektu hartan, hala nola Ziprek, Greziak, Italiak eta Espainiak. Melillako campusetik nik bakarrik parte hartu nuen ikerketa lan horretan, eta gure lana 3-12 urte bitarteko haurrei musika nola irakatsi behar zaien aztertzea izan zen gure lana.

### **Horien emaitzak aldizkari eta liburuetan jasotzen dituzue. Zu, adibidez, Melillako campuseko *Publicaciones* aldizkariaren zuzendari lanetan aritua zara...**

Espainiako eta nazioarteko hainbat argitalpen egin ditugu. Melillako campuseko gure fakultatean dugun aldizkaria da *Publicaciones*. Lau urte egin nituen aldizkari zuzendari nagusi lanetan, eta lau zenbaki argitaratu genituen nire ardurapean. Ardura eta lan handia izan zen aldizkaria zuzentzea, une oro beste unibertsitateetako aldizkari arduradunekin eta nazioarteko unibertsitateekin egon nintzen-eta harremanetan. Aldizkariaren kalitatea hobetzeko lan egin behar izaten genuen.

### **Sari bat baino gehiago ere eskuratu dituzu. Zein?**



Amaia Epelde. UTZITAKOA

**"MUSIKARI BATENTZAT GUZTIA DA MUSIKA, ETA HALA SENTITZEN DUT NIK ERE"**

**"IKERTZAILE NAGUSI BEZALA, IKERKETA PROIEKTU BAT BAINO GEHIAGOTAN PARTE HARTU DUT"**

**"MUSIKA ZER DEN JAKIN GABE EGITEN DA EGUN MUSIKA; JENDEAK EZAGUTZA TXIKIAGOA DU"**

Donostiako Kontserbatorioko ikasketak amaitu nituenean, ohorezko matrikula eman zidaten. Gainera, lehiaketa batean parte hartu nuen, eta lehen saria eskuratu nuen. Aurrera jarraitzeko indarra eman zidaten sari haiek, baita lekuz mugitzeko hegoak eman ere. Lehiaketa hartako sariak ireki zidan Madrilera joateko atea, eta gero, Errusiara eta AEBtara joateko aukera iritsi zen. New Yorken masterra amaitutakoan, 1993an, Newton Swift Accompanying Award saria jaso nuen. Espero gabe, guztia ondo atera zitzaidan. **Coral Polifonica Melillense abesbatzaren zuzendaria ere izan zinen. Lan desberdina izanik, zer-nolako esperientzia izan zen hura?**

Melillara joan aurretik, Azkoitiko Andre Mariaren Jasokundeko parrokiako abesbatzaren zuzendaria izan nintzen, baita organo jotzailea ere. Hamazazpi urtean zuzendu nuen parrokiako abesbatza eta jo nuen organoa, batez ere oporraldietan. Esperientzia eman zidan lan hark, eta Melillara iritsi nintzenean, Coral Polifonica Melillense abesbatza zuzentzeko eskaintza jaso nuen. Bi urtez zuzendu nuen abesbatza hura.

**Musika aldatu egin dela uste al duzu?**

Musika ez da aldatu, gizartea aldatu da. Musika klasikoa oso garrantzitsua izan da beti. Orain ere musika klasikoa da musikaren oinarria, egungo musikaraino eramaten eta garatzen dena. Gaur egun, musika klasikoa entzun gabe konposatzen dute batzuek, inolako ezagutzarik eta oinarririk gabe. Jendea, gainera, azkar ari da ohitzen musika horretara.

**Teknologia baliabideek eragin al dute hori?**

Erabat. Musika sortzeko teknologia asko garatu da azken urteetan, eta jendeak oso erraz sortzen du orain musika. Musika klasikoa beti egongo da hor.

**Musikari bezala egitea gustatuko litzazuken ezer ba al duzu buruan? Ba al diozu zorrik musikari?**

Erretiroa hartutakoan, asko gustatuko litzaidake berriz ere nire pianoa jotzen hastea. Ederra litzateke etxean, Azkoitian, pianoa hartu eta harekin, lehen bezala, ordu batzuk igarotzea; hori da, behintzat, nahi dudana.

**Akaso, berriz ere jendaurrean arituko zinateke?**

Hasiera batean niretzat joko nuke pianoa, baina jendaurrean aritzeari ez diot aterik itxi nahi.

Poliki-poliki joango naiz ikusten hori nola egin.

**Zein dira etorkizunera begira dituzun asmoak?**

Melillan jarraituko dut erretiroa hartu arte, baina tartea dudak bakoitzean Azkoitira itzuliko naiz. Sarritan joaten naiz, baina askoz gehiagotan joan nahi dut. ■■■

# Bizitza



JOSE RAMON ARANBARRI

**A**urtengo Ostiral Santu egunean, Ostiral Santu guztietan bezala, COVID pandemiaren ondoriozko azken bi urteetan izan ezik, sei lagun elkartu ginen afaltzeko. Seiok adin bat dugunez, gure ajeei buruz jardun genuen beste hainbat konturen artean. Batek bizkarreko mina bazuen, beste batek sorbaldan zuela zioen, eta hirugarren batek belaunean protesi bat zuela. Solasaldia eta gero, galdera bat egin nien: zer da zuentzat bizitza? Batek erantzun zuen: "bizitza frenesi bat da"; beste batek, berriz, "hori duk galdera egin duana, galdera potola", erantzun zidan.

Galdera hori egin nien, azaltzeko medikuntzak betebaharra baliabideekin duela adierazteko, eta ez emaitzekin. Medikuntzak, zientzia bezala, bere mugak ditu. Medikuen beharra ez da gaixoa sendatzea, hori emaitzaren beharra izango bailitzateke; medikuen beharra, eta horretara dago derrigortuta, gaixoaren onerako medikuntzak eskaintzen dituen baliabideak erabiltzea da.

Ronald David Laing psikiatra eskoziarrak, honela definitu zuen bizitza: *heriotza-tasa ehuneko ehunean duen sexu-transmisiozko gaixotasun bat baino ez da*. Nik, baina, honako hau gehituko nioke: izaera kronikoa eta tratamendu bakarra heriotza duen osagai genetiko handiko gaixotasuna da bizitza. Inor ez da betirako bizi, eta inork ez dio heriotzari ihes egingo; bizitzak berak erakusten digu, beraz, medikuntza ez dela emaitzen betebeharra, baliabideen betebeharra baizik.

Medikuntzan bada esaldi ezagun bat: gizaki bat 14 urtera arte joaten da medikuarengana; 14 urtetik 40 urtera, ez du medikua ezagutzen; eta 40 urtetik aurrera, lagun egiten du hura. Gaixotasun kronikoa den bizitzak bere ibilbide naturalari jarraitzen dio, itsasoratzen den edozein ibai bailitzan bezala. Gure kulturen oso barneratuta izan dugu bere garaian Ali medikuak nire amari esan ziona, eta beranduago, beti gogoan izango dudana Julian Bereziartua nire maisu estimatuari, askotan entzun niona: *semie sendatzen bada, Jaungoikoari esker; ez bada sendatzen, mediku txarra*.

Bizitza aurrera doan heinean, gero eta aje gehiago ditugu, eta ezin dugu espero medikuntzak, edo Jaungoikoak, guztiak sendatzea. Urteekin azaltzen zaizkigun ajeak, bizitza gaixotasunaren sintomak besterik ez dira. Ezin dugu eskatu gaixotasuna sendatzea, baizik eta hobetzeko ahaleginak egitea, bizitza, bere sintomekin, sendaezina baita.

Aipatu ditut Ali eta Julian, baina ez nituzke ahaztu nahi biekin batera egongo diren Javier Ostolaza eta Ignacio Loiola medikuak. Javierrek asko lagundu zidan nire hastapenetan; Loiolak, berriz, zaindu eta medikuntzako baloreak irakatsi zizkidan. Lauroi, zaudeten tokian zaudetela, mila esker. ■■■

**EZIN DUGU ESKATU  
GAIXOTASUNA  
SENDATZEA, BIZITZA,  
BERE SINTOMEKIN,  
SENDAEZINA BAITA**





# ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DIZUNIERAKO ALDUR GUZTETAKO GAIKURRITUKO DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BRIKOLAJEA, ETA ABARREKO TRESNERIA: HALA NOLA, TORLOQUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GELTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN "ZER BER ETA HURAXE"**


NAGUSIA: 39 - 20720 AZKOITIA - 938 35 31 05  
www.ferreteriazerber.com

# NON DAGO ZAKELMARI?



Uztaileko Maxixatzen aldiakarian **Zakelmari** non ezkatututa zegoen asmatu behar zen: 35. orrialdean zegoen ezkatututa.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Begoña Izagirre** bazkideari egokitu zaio Herrixen merkatarri elkarteak emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Urrian, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna irailaren 12a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [erredakzioa@maxixatzen.eus](mailto:erredakzioa@maxixatzen.eus) helbide elektronikora.



Komertzixo txikiak herrixen esentzixe



# "Daukadan gogoaren arabera hautatzen ditut probak"

**JOSEBA DIAZ** FISIOTERAPEUTA ETA KORRIKALARIA

Egunero mendian ala bidegorrian antxintxika kilometroak egin arren, irakurtzen lasai egotea ere atsegin duen horietakoa da Joseba Diaz. Afizioz atleta eta ofizioz fisioterapeuta da. Egunerokoa ondo antolatuta izaten du, bere buruarekin "zorrotza" da eta.

Testua: **Nerea Uranga**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

**J**atorriak zeresan handia dauka Joseba Diazen afizioan; antxintxika egitean, alegia. Floreaga auzokoa da jatorriz, eta bertan urte askoan biziakoa. Auzo horretako festetan Gurutzetxoko krosa egin ohi dute, eta bertan estreinatu zen korrika umetan. "Floregako haur denek bezala, krosetan irten nuen, eta itxuraz ondo egin nuen. Gero, Ikaskirol krosetan ere ondo moldatu nintzen. Beraz, atletismoan izena ematea erabaki nuen". 8 urterekin hasi zen atletismo taldean, Desire eta Iñaki Odriozolarekin aurrena, eta Jose Antonio Zulaikarekin gero.

Behin eskola kiroleko urteak bukatutakoan, Xeye atletismo taldean federatu eta krosetako zein pistako probak egiten hasi zen. Baina ez du gogokoa pista: "Ez zait inoiz asko gustatu, eta egun, apenas egiten dut korrika pista".

Mendiko lasterketetan, berriz, unibertitate garaian hasi zen azkoitiarra. Sorian (Espainia) ikasi zuen Fisioterapia gradua. "Soriara ikastera joan nintzenean, mendizaletasuna asko bizi zuen jendearekin egin nuen harremana, eta hango mendi taldean sartu nintzen. Garai hartan, asfaltoa-eta pixka bat alboratuta eduki nituen. Mendiko probetan lauzpabost urte egin nituen,

2019ra arte. Gero, berriro asfaltoko probetara itzuli nintzen".

Gaur egun, mendiko eta errepideko probak uztartzen ditu. Bitan banatzen du urtea: "Abuztura arte mendiko lasterketetan ibiliko naiz, eta gero, udazkenean, errepidera itzuliko naiz". Mendia eta errepidea, biek ala biek dute beren alde ona korrika egiteko, Diazen arabera. "Mendian korrika paisaiarekin-eta gozatu egiten da, eta hiru edo lau orduko saioak errepidean baino errazago egiten dira. Asfaltoan, aldiz, entrenamendu gogorra egin daiteke ordubetean, mendian baino intentsoagoa. Gainera, sasoiko egonda, errepidean azkar joatea sentsazio oso ederra da. Horretarako, baina, asko entrenatu beharra dago".

## **Non gogoan, han zangoa**

Gogoaren eta bere nahiaren arabera antolatzen du urteko antxintxikako sasoia. "Markarik edo babeslerik ez dut, inolako konpromisorik ez daukat. Beraz, nik nahi dudana eta nahi dudanean egiten dut, gogoaren arabera". Normalean, urtea antolatuta samar edukitzen du urtarrilerako edo otsailerako, sasoiko helburu gisa bi edo hiru proba jarrita. Aurtengoak ere jomugan





Diaz III. Euskal Kosta Krosean; Azkoitian; mendiko proba batean; eta Donostiako Maratoian. ARGAZKIAK: A. RUBIO APREA, N. URANGA ETA UTZITAKOAK

ditu: "Abuztuaren 13an Alpetan lasterketa bat [Sierre Zinal Trail, 31 kilometro eta 2.200 metroko desnibela duen proba, Suitzan] egiteko asmoa dut, eta abenduan Valentziako maratoian parte hartuko dut. Biak ditut aurtengo helburuen artean, eta data horietan egon behar dut indartsuen. Horretarako, tartean, beste proba batzuetan parte hartuko dut".

Egin nahi dituen proben arabera antolatzen du prestaketa Diazek. Josu Larrañaga du entrenatzailea, eta harekin adosten ditu entrenamendu saioak. "Nire entrenatzailea, lankidea eta laguna da. Egunero ordu pila pasatzen ditugu elkarrekin". Atletismoa bakarkako kirola da, eta prestaketarako nahiz probetarako buruz eta fisikoki ondo egon beharra dago. Diziplina eduki behar da, baina horretan ez dauka aitzakiarik azkoitiarrak: "Txikitatik kirol honetan ibilita, psikologikoki prestatzen joaten zara urteen poderioz, badakizulako zer dagoen. Egunerokoan neure buruarekin oso zorrotza naiz, koadratua, eta eguneroko bera dut. Gutxi gorabehera denda baten ordutegia dut lanerako, baina oso goiztiarra naiz, eta 05:30-06:00 alderako jaikitzen naiz, eta 06:00-06:30 inguruan irteten dut korrika egitera. Entrenatu, egunero gauza bera gosaldtu, lanera joan, bazkaldu, lana egin eta egunero 10:30 alderako ohera sartu. Egunero-egunero horrela".

Bakarrik entrenatu arren, lagunartea gustuko du Diazek, baita lagunekin parranda egitea ere. Baina parranda bat edo beste nahikoa izaten ditu gogo hori asebetetzeko. "Denboralditik kanpo eza daukat arazorik egunerokoa hausteko eta parranda egiteko. Gainera, behin irtendakoan, libre! Parranda gustatzen zait, baina azkar aspertzen naiz, bi-hiru egin eta nahikoa izaten

dit, kitto! Eta lehengora itzultzen naiz, nire eguneroko horretara".

Geldirik egoten ere badaki; etxean sartu eta lasai egotea atsegin du, alegia. Irakurtzea atsegin du, eta denetarik leitzen du. "[Leon] Tolstoiren *El camino de la vida* liburua irakurri dut azkena. Eta horren aurretik, Andre Agassiren *Open*. Denetik irakurri izan dut, kirolarekin lotutakoak asko, batik bat alpinismoaz eta". Mendia gustuko du Diazek, eta ez bakarrik korrika egiteko. Motxila handia bizkarrean hartuta Pirinioetara oinez ibiltzera joaten da. "Oinez, hemen inguruko mendietan baino gehiago ibili naiz Pirinioetan. Motxila bizkarrean, sardina latekin eta otartekoekin, eskuetan bastoiak eta lasai-lasai oinez ibiltzea ederra da. Pirinioetan korrika baino gehiago ibiltzen naiz oinez".

Kirolaria da izatez, eta kirola gustuko duelako hautatu zuen ofizioa ere. "Kirola gustatzen zaidalako aukeratu nuen fisioterapia ikastea, baina baita jendearekin tratua izatea atsegin dudalako ere. Jendeari mina kentzea ere oso polita da; mina kendu diozulako eskerrak jasotzea ederra da".

## Joseba Diaz

- **Adina:** 27 urte.
- **Ikasketak:** Fisioterapiako gradua.
- **Lanbidea:** Fisioterapeuta.
- **Fisioterapeuta ez banintz...** gorputz heziketako irakaslea izango nintzateke.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** antxintxaka egitea, eta ahal denean lagunekin egotea. Baita etxean lasai egotea kafe bat hartzen eta irakurtzen.



Dena den, gorputza eta burua biak izan behar dira ondo Diazen ustez. "Gorputza ondo edukitzea ona da buruarentzako. Gaur egun, gainera, kontsultetara etortzen den jendeak gehiago behar izaten du entzuna izatea: askotan muskuluren bateko minarekin egon arren, gehiago eskertzen du jendeak entzutea. Kasu batzuetan, berdin dio zer egiten diozun, entzute hutsak on egiten baitio pazienteari". Hala eta guztiz, garbi du Diazek: pertsonen osasunean berebiziko garrantzia du kirolak. "Gizarteak kirola egitera bultzatu behar du jendea, baina bakoitza bere neurrian".

Kirolarien prestakuntza zentro batean eta Azkoitiko Elkargunean aritzen da fisioterapeuta lanetan Diaz. Gainera, Iraurgi saskibaloia taldeko bi talde nagusien (Juaristi ISB eta Azkoitia-Azpeitia ISB) fisioterapeuta ere bada. "Lolo [Encinas] entrenatzailea zela hasi nintzen

horretan; hiru edo lau denboraldi izango dira dagoeneko. Etxean jokatzeko dituzten partidetan kantuan egon behar izaten dut Josu Larrañaga prestatzailearekin batera. Normalean, mutilek etxean jokatzeko dutenean, neskek etxetik kanpo izaten dute partida. Beraz, guk biok ez dugu taldearekin bidaiatzen".

Lana eta zaletasuna, fisioterapia eta korrika, ongi uztartzen ditu; horretan, ez du arazorik. "Normalean, korrikan egin nahi ditudan proba garrantzitsuenek ez dute bat egiten saskibaloia ligako partidekin. Hala ere, iaz urrian Amsterdameko maratonia egin nuen, eta ordurako hasita zegoen saskibaloia denboraldia. Lagun fisioterapeuta bati esan nion nire ordezkari partidara joateko. Egun bateko kontua izan zen, baina halakoetan aurrez jakinarazi behar izaten diot klubari". ■■■

**GARAJE**

# AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK  
KONPONTZEN DITUGU**

**Astelehenetik ostiralera:  
08:30-12:30 / 14:30-19:00**


**Larunbatean itxita**

*Classic*

San Joan, Axiri 13  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

**OSKAR BERNAL GOMEZ**  
tailleraxiri@gmail.com



Ordena itzazu dortokak handitik txikiara (handienari 1 zenbakia emanetz, eta txikienari 6). Ondoren dortoka guztien askolak apainduka dituzu, honela: Lehenari edo handienari laukiak marraztuko dizkiazu, bigarren handienari hexagonoak, hirugarrenari erranboak, laugarrenari hirukiak, bosgarrenari biribilak eta seigarrenari uhinak.

## Handitik txikiara

## DOMINOAN

Osatu lauki zuriak, honako domino zati honek zentzua izan dezan.




## biLATU

Zenbat limoi-erdi ete daude koadro honetan? Beste zortzi elementu ere errepikatuta daude, bi aldiz ageri dira. Zeintzuk dira? Bide batez, margotu gustuko dituzun marrazkitxoak.

# Oporrak non?

Marrastu zure burua uharte galdu honetan eta basamortuan, gameluaren gainean. Niri marrastuko duzu aldamenean? Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.



# Sudokua

Bete itzazu sudokua iren lauki zurik IZURDE hitza osatzen duten letra kontuan hartuta (I, Z, U, R, D eta E). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arez bakoitzeko.



# Gerrezi garraia

Aurki itzazu bi inulden artean dauden aldeenak. Hamaika diru gutxira.

U			Z	R
	E			
I			D	
	R	Z		
	R	U		
Z	E		D	I

Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# Herriko festak gozatzeko, luzaroan zain

Bueltan dira herriko jaiak, badatoz andremariak. Herritar oro bezala, herriko taldeak eta eragileak festetarako prestatzen hasita daude dagoeneko; izan ere, azken bi urteetan ez bezala, aurten lan egin beharko dute besteen gozamenerako. Caritas tonbolako taldeko kideekin, Salbean parte hartzen duten abesbatzekin, tabernariekin eta Azkoitiko Gazte Asanbladarekin elkartu da Maxixatzen.

Testua eta argazkiak: **Saioa Murua, Andoni Elduaian eta Maxixatzen.**





## "Ezinbesteko emanaldia da Salbea"

IRAURGI ETA PARROKIAKO ABESBATZAK



Andremariatako hitzordu garrantzitsuenetako bat izan ohi da Salbea. Iraurgi zein Parrokiako abesbatzek eta zenbait herritarrek parte hartzen dute emanaldian. Uztailaren erdialdean ekin zieten

entsegueri, "beste urteetan baino lehenago". Carlos Muñozek hartu du Ignacio Alberdi *Pipix* zuzendariaren lekukoa Parrokiako Abesbatzan, eta entseguen-eta funtzionamendua ezagutzeko, lehenago hasi dira

Salbea prestatzen. Aurten, 30-35 lagunek parte hartuko dute Andre Mari bezperako emanaldian. Abesbatzako kideentzat "tradizioa" da Salbea, eta jendea eguna iristeko "gogotsu" dagoela diote. "Salbea urtero izaten dugun ezinbesteko emanaldietako bat da", nabarmendu dute.

*Salbea* partiturak dioen moduan abestu nahi dute datorren urtetik aurrera. "Orain arte herritarrek dakiten moduan abestu izan dugu, eta aurrerantzean, entseguak lehenago hasi nahi ditugu. Jende berria erakarri nahi dugu, eta entsegu batzuk programatuta, Salbea ezagutzen ez duten herritarri ezagutarazi eta irakatsi".

## "Asmoa egitarau oparoagoa egitea da"

AZKOITIKO GAZTE ASANBLADA (AGA)



Pandemiak iraun duen bi urteek eragin handia izan dute norbanako askorengan; era berean, kaltetuak izan dira herriko gazteak ere. Bi urte luzeren ondoren, Azkoitiko Gazte Asanblada

gazteen indargune eta topaleku bilakatuta, herriko festez gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Lantalde handi eta anitza osatu dute jaiak antolatzeko, eta hori aurtengo festen

egitarauan islatzea nahi dute. Azkoitian berriro ere txosnagunea jartzeak festeei beste "xarma" bat emango diela uste badute ere, egitarau oparoagoa prestatu nahi izan dute, eta Goiko Losatik at ekintzak batzuk antolatu dituzte.

Festen antolakuntzaz erabakiak hartzeko eta proposamenak biltzeko, herritar orori zuzendutako deialdiak egin ditu asanbladak; izan ere, festak herritar orengana iristeko modukoak izaten saiatu dira. Gauzak horrela, kontzertuetara begira, besteak beste, *rap*, *oii* eta *reggae* doinuen eskaintza izango da txosnagunean.

## "Jaiak guztion topagune izatea nahi dugu"

UM BLEM BLE TABERNARIEN ELKARTEA



Edozein jaitan bezala, herriko ostalaritzak garrantzia berezia du andremarietan ere, izan bazkari-afariengatik edo gauetako festagatik. Pandemia garaian, jomugan egon zen

sektoreetako bat izan zen ostalaritza. Gorabehera handiko uneak bizi izan dituzte aurreko bi urteetan, eta aurten, festak berriro gozatu nahi dituzte.

Diotenez, festak normaltasunera itzultzeko "aukera bikaina" dira. Ohiko egoerara itzuli arren, festak izan dira orain arte prebentzioz bertan behera gelditu diren ekintza bakarrenetakoak. Beraz, jendeak berriro goza dezan eta herriari lehen zuen bizitasuna itzultzeko, festak herritar guztien "topagune" izatea nahi dute tabernariak. Helburua ondo pasatzea bada ere, "errespetutik, aniztasunetik zein elkarlanetik eraikitako festak" nahi dituzte andremarietan. Azkoiak "merezi duen adinako festak" sortzea helburu izanik, horiek amaitzean, jaien bost eguneko balorazioa "oso positiboa" izatea nahi dute Um Blem Bleko kideek.

## "6.000 sari banatuko ditugu tonbolan"

CARITASEN TONBOLA



Antolatzaileen hirugarren belaunaldia da Caritasen tonbolako egungo lantaldea. Ibilbide luzea du tonbolak, dagoeneko bost hamarkada baino gehiago igaro baitira hura lehen aldiz antolatu eta ireki

zutenetik. Pentsa, festei hasiera emateko txupinazoa ere jaurti zuten tonbolaren hastapenetan parte hartu zuten kideek.

Sei-zazpi lagunaren artean antolatzen dute tonbola, baina horiek boluntario ugariren

laguntza jasotzen dute. Dagoeneko tonbola prestatzen aari dira Caritasekoak, eta aurreikuspenen arabera, 6.000 sari banatuko dituzte aurten; 50.000 zenbaki baino zenbaki gehiago aterako dituzte.

Ohiko sariez gain, zozketa bidez ere banatuko dituzte aparteko opariak. Aurten, esaterako, tablet bat, kablerik gabeko xurgagailua, airezko frijigailua eta patinete elektrikoa izango dira zozketan. Andremarietan tonbolan jokatzeraz jende ugari animatzen dela diote haren antolatzaileek, eta aurten ere hala izatea nahi dute. "Herritarren kolaborazioarekin, guztiok parte hartuta, gauzak egiteko aukera handiagoa izango da". ■■■■

# ‘Reality’-en errealitatea



Ainhize Azpiazu,  
Alain Ansorregi eta  
Ianire Iriarte.

Bitza erreala bailtzen saltzen dute, baina horrela al da? Askok hitz egin eta eztabaidatu da *reality*-en inguruan, baina zer dago programa horien atzean? Ainhize Azpiazu, Alain Ansorregi, Ibon Arrieta eta Ianire Iriarte herritarrek gertutik bizi izan dute errealitate hori *Baserria*, *El Conquistador del Caribe* eta *Basetxea* programetan, eta Maxixatzen horiekin bildu da bitzako esperientziaz gehiago jakiteko asmoz.

2000. urteko apirilaren 23a zen gizartean lehen *reality*-aren berri hedatu zenean: *Gran Hermano* saioa estreinatu zuen Telecinco kateak. Ordutik bilakaera ikaragarria izan dute halako saioek, eta gaur egun haren antzeko hainbat programa daude. Herritar guztiek ikusi dituzte bat edo beste, denek eman dute iritzia horien inguruan, baina gutxi dira, oso gutxi, horietan parte hartzera ausartu direnak. Azkoitian, ordea, badira batzuk. Zerk bultzatu zituen halako programa batean parte hartzera?

“18.000 eurok”. Garbi eta zuzen esan du Ibon Arrieta *Aitzak* (Azkoitia, 1975). Garai hartan, 2005. urtean, sasoikako langile gisa lan egiten zuen, eta lan horiek eginez biltzen zuen diruarekin bidaia luzeak egiten zituen ondoren. Hala, Hego Amerikatik iritsi berritan, anaia joan zen haren bila aireportura, eta zera esan zion hark: “Ibon, ETB1 saio berri bat grabatzen hastera zihoak, *Basetxea Taberna* izenekoa. Sari potoloa dik, eta hi ezagututa, castinga erraz gaindituko duk!”. Anaiak esan bezala gertatu zen: konturatzeko, programa barruan zen Arrieta, lehen saioa grabatzen.

Alain Ansorregi (Azkoitia, 1990) azken *El Conquistador del Caribe* telebista saioko lehiakidea izan da, eta zera dio hark: “Ni ohartu gabe, Jon Aranda azkoitiarraren bitartez, sartu ninduten castingera. Joatea erabaki nuen, eta berehala hartu ninduten”. Ianire Iriarte (Azkoitia, 1994) Ansorregiren programa berean izan zen, eta Ainhize Azpiazu (Azkoitia, 1996), berriz, *Baserriaren* bigarren edizioan. Bi neskek programak ikusi eta gustuko zituztelako erabaki zuten horietan parte hartzea. Hala ere, biak bat datoz castingera “ikustera eta probatzera” joan zirela esatean. “Bat-batean, barruan zaude!”, diote.

Behin programa barruan, askotariko esperientziak izan dituzte. Aitzak oroitzapen txarrak ditu, batik bat, alderdi psikologikoari dagokionez. “Presio ikaragarria jasan genuen kamerengatik eta mikrofonoengatik. Bi pertsona une oro genituen gainean, atzetik jarraika: egunez eta gauez. Jazarpena da azkenean. Poliki-poliki, betetzen joaten zara, leher egiten duzun arte, nahiz eta telebistan txorakeria bategatik dela dirudien”.

*Reality*ak psikologikoki gogorrak direla diote beste hirurek ere, baina hori baieztatzeko arrazoï desberdinak dituzte. Azpiazu, adibidez, bikotekidearekin sartu zen programan, biak “ilusioz gainezka” zeuden, eta lehenbiziko saioan kanporatua izan zen mutila. “Niretzat egundoko kolpea izan zen. Oso pertsona emozionala naiz, gertatzen zaidan dena hamar aldiz biderkatuta bizitzen dut, eta imajinatu programan!”.

Ansorregi eta Iriarte ondo moldatu ziren programan, baina bereziki gogoan dituzte zenbait gau. “Ikusleak ezin du nabaritu zeinen gaizki pasatzen dugun”, dio Ansorregik. Hark esandakoa buruarekin baieztatu du Iriartek, baina alde ona ere bilatu dio egoerari: “Egoera txar horietan ezagutzen dituzu benetan ondoan

Testua: **Kris Fernandez.**  
Argazkiak: **Kris Fernandez**  
**eta utzitakoak.**

**“EGOERA TXAR  
HORIETAN EZAGUTZEN  
DITUZU BENETAN  
ONDOAN DITUZUNAK,  
ETA ZEURE BURUA”**



## "ENTZUNA NUEN TELEBISTAN DENA FALTSUA ZELA, BAINA BIZITZEA BEHAR NUEN"

Ibon Arrieta *Aitza*.

dituzunak, baita zeure burua ere". Bat dator Ansorregi: "Hori egia da, zure egunero bizitzan ematen duzunaren aldean askoz gehiago eman dezakezula ikusten duzu".

### **Errealitateaz**

*Reality*etan ikusleak ikusten duena errealitatea al den galdetuta, baiezekoak irabazi du. "Egia da, baina ez %100ean", esan du Azpiazuk. "Izan ere, kamerak ez daude 24 orduetan, eta une horietan gauza asko gertatzen dira. Beraz, ikusleari informazioa falta zaio batzuetan egoera batzuk ulertzeko", erantsi du.

Aitzak esaera bat ekarri du gogora, bizi izandakoa oroitzeko: "Bada esaera bat: jakiteko irakurtzen da, egiaztatzeko bidaiatzen da. Telebistaren kasuan hori gertatu zitzaidan; entzuna nuen dena faltsua zela, baina bizitzea behar nuen. Gure urtean, adibidez, joko psikologiko handia erabili zuten, arauak egun batetik bestera aldatuz. Azkenean, limitera eramaten gintuzten, lehertu arte".

Ansorregiri gertatu zitzaion *Aitzak* esandakoaren harirako antzekoa programatik kanporatua izan zen dueluan. Haren esanetan, berak bizitakoa eta telebistan agertutakoa ez zetozen bat: "Telebistan hamabost minutu zena han bi ordu ziren; hasieran aldameneko egurrak ezin nituela esan zidaten, baina hori ez zuten bota telebistan: Marijo hamaika aldiz erori zen, behin eta berriz, saiatu zen duelua amaitzen, eta hori ere ez zuten eman...". "*Baserria* saioaren esperientziaren ondoren, horrelako programak beste begi batzuekin ikusten ditut", onartu du Azpiazuk.

Zerbait erreala bada, "sufrimendua" dela dio Iriartek: "Jatekorik gabe, baldintza txarretan... egoten gara. Hori guztiz erreala da. Are gehiago esango nuke: telebistan gutxi nabari da sufrimendu hori".

### **Errepikatzeko prest**

Une txar horiek bizi arren, guztiek errepikatuko lukete esperientzia, xehetasun batzuk aldatuta, ordea. Aitzaren kasuan, adibidez, berriro

parte hartuko balu, “ikuspuntu enpresarial” batetik egingo luke, eta, “beti ere, bidaiekin lotutako programa izango balitz”. Azpiazuk, berriz, ez luke esperientzia bikotekidearen elkarbanatuko berriro: “*El Conquistador del Caribe* probatuko nuke, baina bakarrik joanda. Nahikoa lan izaten duzu zure buruarekin, beste bati begira egoteko. Bera animatzen dut joatera, eta ni ere joango nintzateke hurrengo edizioan, baina batera berriro ez. Ez, ez! Askok maite dut e, baina pisu ikaragarria da!”, dio barrez. Izan ere, Ansorregiren arabera, “bizitzako esperientzia” da *El Conquistador del Caribe*, “behin probatu beharrekoa”.

Jendearen babesa ere asko sentitu dute, sare sozialetan, batik bat. Maitasun eta babes mezuak izan dira denak, baita proposamen bereziak ere: “Azken programan mezu bat jaso nuen, ea inguruan hotelik ba al nuen galdezka, berak ordainduko zuela... Ez sinestekoa!”, agertu du Ansorregik. Iriartek eta Azpiazuk ez dute horrelako mezurik jaso, baina oso hunkituta agertu dira jasotako animo guztiak tarteko: “Harritzekoa da zenbat mezu jaso ditudan, denak baikorrak, gainera”, dio Iriartek. “Nire kasuan, urte batzuk pasa diren arren, oraindik gogoratzen naute sare sozialetan, eta Tik Tok aplikazioko zuzenekoetan sartzen naute. Haietzako zerbait handia egiten ari zara, eta bitartean, nik betikoa izaten jarraitzen dut; Ainhize, azkoitiarra eta *kristalerruen alaba*”, azaldu du Azpiazuk.

Azkoitiarrak *reality*etan edo beste programetan parte hartzera animatu dituzte elkarrizketatuek, eta “beldurrik ez izateko” gomendioa eman dute: “Askotan, esango dutenaren beldur gara, baina joan nahi duena, joan dadila, mereziko du eta”, esanez animatu ditu herritarrak Iriartek.

### Kamera atzetik

Kamera aurrean, lehiakide gisa, ibili diren azkoitiarren testigantzak bildu ditu Maxixatzenek, baina, bada beste azkoitiar bat kamera atzeko lanean dabilena; Iban Garcia *Supervivientes* saioan. Egutero 15 minutuko programa egiten du -*Infiltrados*-, eta *reality*-a beste ikuspuntu batetik kontaktzen du: partaideak bizi diren hondartzetan sartzen da, haien arropak eta tresnak erakusteko, familiakoak bisitatzen joaten zaizkienean berak elkarrizketatzen ditu edota programatik kanporatuak diren partaideak hotelera eramaten ditu.

Partaideak ikusten dituen arren, haiekin harremanik ezin du izan azkoitiarrak, baina, bizi duten egoera eta dituzten baldintzak ikusita, “pena” sentitzen duela onartzen du: “Oso serio eta zuzen ematen da biziraupen gaia, eta hondartzan, hondarretan egiten dute lo, apenas jaten dute, kilo pila bat galduta... Oso gogorra da baldintza horietan bizitzea. Ikusleak ezin du imajinatu”, azaldu du Garciak Hondurastik.

*Reality* bateko atzeko lana ezagututa, azkoitiarrak ez du baztertzen batean parte hartzerik. “Abentura zalea naiz, eta prest nago. Hori bai, *El Conquistador del Caribe* bezalako programa batean ez, asko entrenatu behar duzu eta. Baina, aldiz, *Supervivientes*-en ikusten naiz. Hala ere, zaila da eta ez dut ezer planteatu nahi”, amaitu du. ■■■



Iban Garcia Hondurasten.

**REALITY BATEKO ATZEKO  
LANA EZAGUTUTA,  
GARCIAK EZ DU  
BAZTERTZEN BATEAN  
PARTE HARTZERIK**



# Berdinean desberdin

Eskua emanda, elkarrekin batera munduratuako herritar asko daude Azkoitian. Kasu bitxi bat baino gehiago aurkitu ditu Maxixatzenek erreportaje hau osatzerakoan; izan ere, esaterako, bikiak eta hirukiak dira Alkorta-Elduairen familian, eta bi biki alditakoak dira Subinas-Astigarraga familiako seme-alabak. Testua: **Andoni Elduaien**. Argazkiak: **Andoni Elduaien eta utzitakoak**.



### **Alkorta-Elduaien familia**

Berezia da Alkorta-Elduaien familia; izan ere, bost anai-arreba dira, eta horietako bi bikiak dira eta hirukiak besteak. 1977ko azaroaren 17an jaio ziren Xabier eta Andoni bikiak, eta 1981eko urtarrilaren 18an, Borja, Dorleta eta Olatz hirukiak. Amak esanda dakite, bost umeek etxean bat egin zutenean, "sekulako giroa" izaten zutela, eta "xextrak-eta" ez zitzaizkiela falta izaten. Gainera, bikiek gogoan dute gurasoei lagundu zieten hirukiak hazten, "biberioia emateko-eta" guztien eskuak beharrezkoak baitzituzten.



### **Iker eta Eneko Sarasua**

2003ko martxoaren 8an jaio ziren bi anaiak. Ingurukoek erraz bereizten dituzte, baina aitortu dute batzuek lanak izaten dituztela bakoitzari dagokion izena asmatzen. Haurra zenean, bekainean zuen pikorta bategatik desberdintzen zuten Eneko Ikerrengatik; orain, belarritakoa darama hark. Bi anaiek zaletasun berberak dituzte; izan ere, biak aritu izan dira dantzan, nahiz eta egun Enekok bakarrik jarraitzen duen. Futbol zaletasuna elkarrekin uztartzen jarraitzen dute Anaitasuna futbol taldean.



### **Iker eta Ines Romero**

2009ko azaroaren 27an jaio ziren Iker eta Ines Romero. Ikerrek futboleko jokatzea du gustuko. Ines, berriz, ez da oso kirol zalea; hark nahiago du bere denbora librea lagunekin igarotzea.

### **Ruben eta Luis Lizarralde**

1970ko otsailaren 26an jaio ziren Ruben eta Luis Lizarralde. Ruben anaiak dioenez, Luisen atzetik ibili behar izaten zuen haurtzaroan, bazter guztietan "abenturetan" aritzen baitzen hura. Bi anaiek bat egiten duten zaletasun bakarra musika da; gainera, musikarako oso belarri fina du Luisek. Telebista saioetan parte hartzen duten abeslariak berehala epaitzen ditu hark. Osterantzean, futbola eta esku pilota asko gustatzen zaizkio Luisi, aldiz, Rubeni ez asko.



### **Laida eta Karla Beristain**

Laida eta Karla Beristain 1992ko maiatzaren 29an jaio ziren. Umeak zirenean, denbora asko igarotzen zuten elkarrekin, eta bi ahizpek diotenez "txakurra eta katua" bezala ibiltzen ziren. Halere, kuadrilla berean hazi dira, eta ikasketak ere unibertsitate berean egin zituzten. Lehen, biek elkarrekin ibiltzea gustuko ez bazuten ere, orain bide beretik doaz ahizpak, ia beti elkarrekin egiten baitituzte planak. Iaz, gainera, ama izan ziren biak; urte bereko bereko seme-alabak dituzte, beraz.

**Subinas-Astigarraga familia**

Lau anai-arreba dira Subinas-Astigarraga familian, eta horien kasua ere berezia da; izan ere, bi biki alditakoak dira. 1998ko maiatzaren 1ean jaio ziren Ania eta Joanes, eta 2002ko uztailaren 9an Sunahi eta Inhar. Diotenez, ez dute elkarren artean antz handirik, baina harreman estua izan dute betidanik. Aitortzen dute, ordea, lotura are estuagoa duela bakoitzak bere bikiarekin. Ania eta Joanes banaezinak ziren txikitan, baina urteen poderioz "bakoitzak bere bidea" hartu du. Aldiz, Sunahik eta Inharrek oraindik ere oso lotuta jarraitzen dute. Hala eta guztiz ere, "sekulako harremana" dute lau anai-arrebek.

**Anparo eta Urrategi Balentziaga**

1973ko abenduaren 13an jaio ziren Anparo eta Urrategi Balentziaga. Kirola dute gustuko bi ahizpek, bereziki mendian ibiltzea. Lasaitasuna aurkitu nahi izaten dute mendira joanda. Nahiz eta egun duten ile koloreagatik elkar bereiztea errazagoa den, bi ahizpek nabarmendu dute itxura batera "oso berdinak" izan direla. ■■■

# Kale Nagusia?



IRENE ELORZA

**G**utxitan zeharkatzen dut Kale Nagusia punta batetik bestera, gehiago gustatzen zait ibilbidea ibai ertzetik egitea. Baina banoa oraingoan Balda Plazatik etxera oinez, eta itxita dauden dendak eta lokalak zerrendatzen hasi naiz: Iturri, Presalde, Atano, Praga, Alameda, garai batean "beheko" farmazia zena, Aldalur, Putre... Egoerak tristatu egin nau. Nostalgiaz gogoratzen hasi naiz lokal haietako batzuek ekartzen dizkidaten oroitzapenak: Atanotarren dendan txukun-txukun ikusgai zeuden koloretako *Lanas Katia* matazak; aitte, Alamedako mahai baten inguruan eserita txistulari lagunekin hamaiketako egiten; farmaziko Juanita *Botikekue*-n presentzia eta ibaira ematen zuen botika-oste zoragarri hura; Aldalur jostun zaharraren eta bere jostundegiaren dotorezia...

Aldamio erraldoia gaingitu eta kalean gora jarraitzen dut, lepoa ezker-eskubi, lokalei begira: Luziano, estanko ondoko denda txikia, Unamuno... Eta plazatik aurrera, garai batean Donostiako eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxa zena eta orain gutxi arte bazar txinatarra izan dena, Fernando harategia, Bernabe, Potto harategia, Martin Zar, Etxeza, Donibane, Txanbolin, Ayestaran, Amparo, Banco Guipuzcoano... Etxera iritsi naizenerako pare bat saltoki ikusi ez eta aipatu gabe utzi ditudala konturatu naiz, hain nago neure pentsamendu nostalgikoetan murgilduta. Hori bai, hirigune historikoan taberna-terrazetarako jarri dituzten hiru toldo-egitura handi, zatar eta ustez mugigarri edo ez-finkoak ederki askorik ikusi ditut (baina gai honek beste zutabe baterako ematen du, eta hemen utziko dut).

Kale Nagusiko saltoki horietako askok urteak daramatzate itxita eta ulergaitza egiten zait. Ziur nago ekintzaile askok negozio bat ireki nahiko luketela herriko erdigunean, Azkoitiko hirigune historikoaren bizkarrezurra den kale horretan. Baina alokairuak oso altuak ote diren susmoa dut. Agian oker nago, baina iruditzen zait lokal horien jabe askok ez dutela diru-iturri horren beharrik bizitzeko, eta ez dutela inolako interesik beren jabetzak arrazoizko prezio batean alokatzeko, hau da, merkatu "libreak" agintzen dituen prezioen azpitik.

Udala saiatu zen itxitako saltoki horiek kanpaina baten bidez merkaturatzen laguntzen, baina uste dut ez zuela arrakasta handirik izan. Bada garaia ekintzetara pasatzeko, ausartak izateko eta helburu argi batekin agintea baliatzeko. Bost urte baino gehiago (adibidez) itxita daramaten saltokiak ezin al dira zergapetu? Aipatutako kasu horietan, ezin al dira alokairu babestuaren bidez merkaturatu, Alokabidek Bizigune programaren bidez egiten duen bezala? Zerbait egin beharko lizateke Kale Nagusiari duintasuna eta bizitza atzera emateko. ■■■

**ZIUR NAGO EKINTZAILE  
ASKOK NEGOTIO BAT  
IREKI NAHIKO  
LUKETELA HERRIKO  
ERDIGUNEAN**

# IZAN KA IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO  
DESKONTUA IZANGO DUZU  
bazkide@ukl.eus • 943-81 38 41

**MAXIXATZEN**

LAGUNTZAILEA



Elkarrizketa, Informazioa



# Altxa burua



IXABEL JAUREGI

**Z**er diosta bizitzak/hizkuntzaren gaien? Hementxe nabilela/normal bizi nahian/ez jaio arren oso/epoka lasaian/suerte bat izan dut/nik nire garaian/gonbidatu nautela/Euskararen jaiian" (J. Sarasua). Euskararen jaira gonbidatu gaituzte hogeitabigarrenez, eta Karmele Jaioren mezuaren hitzak entzun ditzagun, begiak itxita: "Sinistu dezagun euskara ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik". Miren Alberdik eskerrak eman zizkigun maiatzeko alean, nahiz eta ez egin Korrika Kulturean ahalegin handirik, nahiz eta batzordeetan ez parte hartu. Iaztik zegokigun ale hori jartzea, pandemiari botako al diogu errua? Lehen borondatez egiten ziren lanak inertziaz egiten al ziren? Euskara presente al dugu gure egune-rokoan? Ez al gara transmisioa bermatzeko arduradun sentitzen?

Herriko hainbat txokotan gaztelera hutsunean ari dira asko, nahiz hemen jaio edo urteak eman gurean bizitzen. Errespetu eza adierazten didate, ez dute itzultzen agurrik, dakizkiten hitzak ez dituzte erabiltzen eta ez dira ari euskaraz ikasten. Nahikoa zaie ulertzera iristea, baina gero euskara batua eta Azkoitiko euskara izango dira aitzakia. Jasanezina zait esaldi berean bi hizkuntza natural-natural nahastea, 5 urteko alaba udan oporretan gaztelania ezin delako komunikatu kezkatuta egotea edo ikasketak zein lana medio kanpora atera eta gaztelera trakets erabiltzeaz lotsatuta egotea.

Erdarak irentsita gaituenean? Hiztegia ere zabartu dugu: *fotoe, pedue, katxue, eskusie... zumito, a lolitos, patituk, arrejuntatzeko ordue...* 1999. urtean, Azkoitia sortu zaneke 675. urtebetetzean egin zen bezala, beste beka bat atera behar al dugu Azkoitiko euskera lantzeko? Hemendik bi urtera, Azkoitiak 700 urte betetzen dituenerako, agian?

Zer iruditzen ikasleek, 16-17 urterekin, EGA ateratzeko aukera dutenean, *Advanced* lehenestea? Azterketa hori prestatzeko eta ordaintzeko prest egotea, eta EGA, D ereduan landua eta azterketaren matrikula merkeagoa izan arren, atzeratzea, gerorako uztea, agian ez egitea...? Garrantzirik ez zaio ematen. Non dira gure herrian adin horretara iristean gazteen gehiengoak EGA lortzen zuten garaiak? Gure hizkuntzak, munduko beste askok bezala, baditu behar adina gaitasun, baina norberak garatu behar ditu horiek, eta horretarako borondatea jarri behar du.

Nola adierazi funtsezkotasuna? Euskarak lurralde hau besterik ez du, eta guri dagokigu erabiltzea eta babestea, euskaraz bizitzea.

Nahiz ez izan nazio ezagutua, ahaztu egiten zaigu eta ez dugu barneratuta nazioa hizkuntza komunitatea dela. Hizkuntzarik gabe ez gara gu, baina hizkuntza ere ez da gu gabe. Ni hizkuntzarentzako garrantzitsua izango naiz, hizkuntza niretzat garrantzitsua baldin bada.

Hizkuntza asko ditugu gure herrian, gure baitan, baina euskarak euskaldunok bakarrik gaitu. ■■■

## Bertsoa paperean

GAIA: Andramaixek  
Izena: Jokin Sudupe  
Doinua: *Ari naizela, ari naizela*

### Euskal Herrixen herriko festak

badaukebe balorie,  
kaletan daon jendiek eztu  
falta poz ta umorie,  
andramaixek e gañien ditteu  
gozau dezagun gurie,  
aurtengo hauek izengobe ta  
zapore askoz hobie.

### Martitte ixoz bizikletikin

alibun utzi aitzakixek,  
txupinazuen euneako  
gogue badu herrixek,  
kontzerto onak eta kortuek  
dittugunez berezixek,  
gustoa kantau berdeu berrize  
Ondo pasau andramaixek!



# ENTZUNEZKOAK

- ZUZENeko EKITALDIEN EMISIOA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- BIDEO MARKETINA
- SARE SOZIALETARAKO IKUS-ENTZUNEZKOAK
- PUBLIRREPORTAJEAK
- DOKUMENTALAK



**GUKA**  ZERBITZUAK

**MILAR**  
**LARRAMENDI**

Etxetresna elektrikoak

  
**Cooking  
& Chef**  
BUKALDE GUNEA

ABUZTUAREN 29AN  
ITZULIKO GARA  
DENDARA, BAINA  
BITARTEAN, GOGORATU  
[www.milar.es](http://www.milar.es)  
WEBGUNETIK EGIN  
DITZAKEZULA  
EROSKETAK.



**ONDO PASAU ANDRAMAIXEK 2022**



**FK**

**KOPISTEGIA**

Inazio Iriarte, I • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxa: 943-85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)